

Orain ehun eta berrogeitamar urte jaiak ez ziren jai izan

Jai-ospakizun honek eskaintzen dizkigun hitz-lerro hauetan gutxitan ohartu izan gara egitarauan iragarri eta aurrera eraman ez diren egintzez. Hau da, adierazpen hutsean geratzen diren jaiak, arrazoi erlijioso, politiko, militar edo osasunezkoengatik ospatzen ez diren jaiak, gertakizuna bizi izan zuten jendeen oroipen ahuletik idatzira pasaz, sarritan, herriko historiaren kutxa hautsez bete eta ahaztuan babesa bilatzen dutenak.

Gure Patroiaren ohorez egiten diren festek ere ezin izan diote ihes egin gertaera horri. Nahikoa da Udal-Artxibora jotzea, ikusteko behin baino gehiagotan gertatu izan dela hori.

Hori izan zen hain zuzen ere orain ehun eta berrogeitamar urte gertatu zena eta ordutik iragandako mende t'erdi honek aukera ematen digu so egiteko berari, zalantzarik gabe, gure herrian egun haietan biziki sentitu zen gertakariari.

Gure ingurunean San Juan Bataiatzailearen festarekin identifikatzen den udamugaren ospakizunaz, 1840 urtekoaz, kontatzen ari garen erreferentzietan ez dira aipatzen etxe atarietan pizten ziren suak; XVIII. mendean bertan oraindik ohizkoa zen su horiek arratsaldeko 6etatik 8ak bitartean piztea.

Badakigu, urte horretako Jai-Egitaraua ez zela izan azken orduko bat-batekotasunaren emaitza; bidezko arreta eta arduraz egina izan zen.

Hilaren hogeitabosteko egintzetan honako hau aurkitu dugu besteak beste: zezenen sarrera herriko kaleetatik zehar; eta goizeko hamarretan idiskoak.

Hirugarren jai-egunean, azken egunean alegia, Juan Ignacio de Iztuetaren presentzia da gauzarik nabariena. Zaldibiko koreografo honen zuzendaritzapean dantzari-talde batek ihardun zuen

Baina, ekainaren 23an Udalak zera erabaki zuen: Balmaseda eta Forcadell-en fakzioen inbasioarengatik bertan behera uztea San Juan egunerako

eta ondorengoetarako iragarritako ospakizunak eta Gabriel Gendulain J.ri itzultzea festarako ekarritako zezenak bidezko gastuak eta galerak ordainduz. (Udalak zortzi zezen erosi zituen).

Era berean hurrengo erabaki hau ere hartu zuten: Santa Maria Eliza-Parrokiko Eliz Kabildoari adieraztea, Korporazioak ezin zuela esku hartu ohizko elizkizunetan egun horretan eta hurrengo beste bi egunetan, kontutan harturik herriaren egoera eta Udalak egun horietan zituen eginkizunak.

Bertan behera utzitako festa horiek aurrerago ospatu ziren. Holaxe zioen herriari egindako adierazpen batek: Ejerzitoaren eta euskaldunen leialtasunari esker menperaturik zeudenez Balmaseda eta Palacios-en fakzioak, zorionez desagertuta zegoela San Juan festak bertan behera uzteko arrazoia. Eta horren ondorioz, festak Uztailaren 24, 25 eta 26an egitea, ekainerako iragarrita zeuden bezalaxe, ezer kendu gabe alegia. Abisu honek 1840eko uztailaren 8ko eguna darama.

Hauek dira labur bildurik Tolosak orain ehun eta berrogeitamar urte bizi izan zituen gertaerak; orduko sanjuanetan ezohizko eragina izan zuten gertakariak hain zuten ere.



Orain ehun eta berrogeitamar urte jaiak ez ziren jai izan = Hace ciento cincuenta años, las fiestas que no fueron fiestas / Juan Garmendia Larrañaga. – En : *San Juan Jaiak 1990 Tolosa*. – Tolosa : Tolosako Udala, 1990. – [12] p. : il. ; 21 cm. – P. [2-3]. – OC. T. 4, p. 429-432